

**mundukide**kooperazio kooperatiboa
cooperación cooperativaZarugalde, 30
20500 Arrasate-Mondragón (gipuzkoa)
Tel.: 943 772 010
e-mail: mundukide@mundukide.org

www.mundukide.org

Buletina

mundukide

**Joxemi Arregi Arantzeta**
Boluntarioa

Hausnarketarako gonbidapena Una invitación a la reflexión

Erraz uztartzen dugu eraldaketa sozialerako konpromisoa gure gertuko ingurunearekin. Goitik behera hobetu nahi genituzkeen alorrak identifikatzen ditugulako (desberdintasuna, pobrezia, generoa, arrazismoa, emigrazioa, jasangarritasuna, ingurumena, injustizia...). Eta alor horietan gure ekarpena egiteko aukerak identifikatzen ditugulako, nor bere errealitateak abiatuz. Eta hala da. Posible da hori egitea.

Geure buruari galdetu beharko genioke ea mugimendu kooperatiboa eta bertako pertsonak kontziente ote diren (garen) eta kontziente izan behar ote duten (dugun) kooperatibek daukaten dimentsio unibertsalaz.

Ekar ditzagun hona Mundukideko lankide beterano baten berbak: "Kontziente izan behar dugu zortedun gara hemen jaio eta hemen bizitzeagatik". "Herrialde aberatsetan bizi gara".

Mundukidek, hein handiagoan, kooperatiben eta pertsona kontzienteen aliatu nagusia izan nahi du nazioarteko elkartasunaren alorrean.

Babesa eta bizia ematen diotenen zerbitzura dagoen tresna izan nahi du, hegoaldeko herrialdeetan ere eraldaketa sozialean laguntzeko.

Iparraldeko herrialdeok, neurri handian, denok ondo ezagutzen dugun desberdintasun horren jatorrian gaudelako.

Kezkatzen eta jardutera bultzatzen gaituzten gaiak are biziago, gordinago eta ankerrago agertzen direlako hegoaldeko herrialdeetan.

Eta denok konpondu nahi ditugun arazo asko ez direlako ez "hemengoak" ez "hangoak". Denoi eragiten digute, eta nekez dira disoziatzen. Eta Mundukideko lantaldearen zeregina lagungarria izaten ari delako gero eta pertsona, emakume eta familia gehiago beren bizitzaren jabe izan daitezten eta hobeto bizi daitezten. Eta hori guztia lana eta interkooperazioa bultzatuz.

Laburbilduz, hauek izango lirake Mundukidek datozen urteetan bultzatu nahi dituen ekarpen ildoak:

- Orain arte metatutako esperientzia errepikatu eta esperientzia berriak garatu.
- Kooperatibek bultzatutako eraldaketa sozialeko proiektuetan lankidetzan jardun.
- Eraldaketa sozialerako hezkuntza egitasmoak sustatu.
- Nazioarteko elkartasunaren alorrean aliatua eta tresna izan.

Aldi estrategiko bat hasi behar dugu, 4 urte ditugu aurrean. Lantaldean ilusio handia dago, daukagun esperientzia gero eta baliotsuagoa da, eta gure ingurunearen eta pertsonen babes handia ere hor dago. Asko dago egiteko eta bereziki zaindu beharrekoa Mundukide Proiektua pertsonengana iritsiaraztea da. Ezagutu eta proiektuaren garapenean lagun dezaten. Garapenerako lankidetzan aintzindari bazala senti dezaten. Gurea, gertukoa eta sinesten dugun baloreetan oinarritutakoa.

Asociamos con facilidad el compromiso de la Transformación Social con nuestro entorno cercano. Porque identificamos ámbitos que nos gustaría mejorar drásticamente (desigualdad, pobreza, género, racismo, emigración, sostenibilidad, medioambiente, injusticia...). Y porque identificamos en ello oportunidades de aportar, cada cual desde su realidad. Y así es. Es posible hacerlo.

Cabe preguntarse si el Movimiento Cooperativo y sus personas son (somos) y deben (debemos) ser también consciente de su dimensión universal.

Tomando prestadas las palabras de un veterano cooperante de Mundukide, "nosotros debemos de ser conscientes de lo afortunados que somos de nacer y vivir donde vivimos". "Vivimos en países ricos". Mundukide aspira a ser, aún en mayor medida, el aliado principal de las cooperativas y de las personas conscientes, en el terreno de la Solidaridad Internacional.

Un instrumento al servicio de quienes le apoyan y le dan vida, para ayudar a la Transformación Social también en los países del Sur.

Porque, en gran medida, los países del Norte estamos en el origen de esa desigualdad que todos y todas conocemos.

Y porque aquellas cuestiones que aquí nos preocupan e impulsan a actuar, se manifiestan de manera mucho más intensa, descarnada e inhumana aún, en los países del Sur.

Y porque muchos problemas que todas/os deseamos resolver, no son de "aquí" ni son de "allá". Nos afectan a todas/os, son difícilmente disociables.

Y porque la labor del equipo de Mundukide está ayudando a que más y más personas, más y más mujeres, más y más familias sean sus propios/as dueños/as de sus vidas y vivan mejor. Y todo ello impulsando el trabajo y la intercooperación.

Estas serían pues, resumiendo, las líneas de contribución que desde Mundukide se pretenden impulsar en los próximos años.

- Replicar la experiencia ya adquirida y desarrollar nuevas experiencias
- Colaborar en los proyectos de transformación social que impulsen las cooperativas.
- Impulsar iniciativas de Educación para la Transformación Social
- Ser un aliado y un instrumento en el ámbito de la Solidaridad Internacional

Se inicia todo un periodo estratégico, 4 años por delante. Hay mucha ilusión en el equipo, también una cada vez más valiosa experiencia y un importante apoyo de nuestro entorno y sus personas. Queda mucho por hacer, y una de las cuestiones a las que prestar especial atención es hacer llegar el proyecto Mundukide a las personas. Para que lo conozcan y ayuden a su desarrollo.

Y para que lo sientan como una referencia de cooperación internacional. Nuestra, cercana y basada en los valores en los que creemos.

Multiplicando nuestra cooperación para transformar la sociedad

Datozen urteetako fundazioaren lan dinamika egokia bermatzeko asmoz, Mundukidek 2018-2021 epealdirako hausnarketa estrategikoaren ondorioz honako erronka nagusiak identifikatu ditu.

Tras la reflexión estratégica realizada por el equipo de Mundukide para el periodo 2018-21, se han identificado los siguientes retos estratégicos con el objetivo de garantizar el buen trabajo de la fundación.

2018

**LANKIDETZA
MULTIPLIKATU**

Metatutako esperientzia errepikatu eta esperientzia berriak garatu.

**MULTIPLICACIÓN
DE LA COLABORACIÓN**

Replicar la experiencia acumulada y desarrollar nuevas experiencias.

PERTSONAK

Pertsonen konpromiso, motibazio eta profesionaltasunean aurrera egin.

PERSONAS

Avanzar en el compromiso, la motivación y la profesionalidad de las personas.

**GURE INGURUNEKO ERALDAKETA
SOZIALEAN INPLIKATU**

Gure posizionamendua zehaztu eta eraldaketa sozialerako proiektuetan inplikazioa handitu.

**IMPLICACIÓN EN LA
TRANSFORMACIÓN SOCIAL**

Definir el posicionamiento y aumentar nuestra implicación en los proyectos de transformación social.

**JASANGARRITASUN
FINANTZARIOA**

Mundukideren finantza beharrei erantzun.

**SOSTENIBILIDAD
FINANCIERA**

Satisfacer las necesidades financieras de Mundukide.

2021

GARAPEN IRAUKORRA

Mundukidek datozen 4 urterako plangintzan finkatutako lan ildoek, NBAK 2030 agendan onartutako hainbat helburutan eragiteko bideratuak daude. Besteak beste, pobrezia desagerrarazteko, planeta babesteko eta pertsona guztiei oportunitateak bermatzeko xedez.





PERTSONAK OINARRIAN LAS PERSONAS EN EL CENTRO

RAUL GARCÍA DÍAZ

Mundukideko lehendakaria

Datozen lau urtetarako Plan estrategikoa onartu berri dugu Mundukiden. Garapenerako lankidetzak gehiago egin nahi dugu, motibatuagoa eta profesionalagoa den lantalderekin, era berean gure gizartea humanoagoa bilaka dadin eraldaketa lana eginaz eta azkenik erakundearentzat finantza egoera egonkorra lortuaz. Erronka guzti hauek, gure gizartearekiko eraldaketaren gaiaren inguruan zentratu nahi nuke bereziki. Indar berezi bat dago euskal mugimendu kooperatiboan eta baita beste erakunde batzuetan, eraldaketa sozialeko hainbat eremutan aurreratzeko. Berri ikaragarri ona eta gizartea hobetzeko aukera paregabea eskaintzen diguna. Hori bai, zerbait gaizki egiten ariko gara, gure indar guztiak piramidearen goienengo aldean dagoen gizarte bat hobetzeko lanean ari bagara soilik eta beste munduko izkina batzuetan bizi duten egoerez ahazten bagara. Eta horixe bera lortu nahi dugu eronka honekin, hegoaldeko herriekin lankidetzak sendotzeko gure gizartea sentsibilizatzea.



ARANTZA LASKURAIN ARTETXE

Secretaria del patronato

En Mundukide, existe un proyecto ilusionante propio que responde a nuestros principios y valores ayudando a transformar el entorno cooperativo que pretendemos convertirlo en más atractivo para los y las cooperativistas de todas las edades. La labor de Mundukide da respuesta a una necesidad del ámbito cooperativo. Compartimos nuestra experiencia en entornos en los que existe una necesidad de cambiar las condiciones en las que viven las personas y trabajamos para que todas las personas tengan oportunidades para vivir mejor. El equipo de Mundukide está con ganas y con ilusión, me gusta mucho la visión de este plan estratégico y resume muy bien el futuro. Personas ilusionadas, multiplicando nuestra cooperación para transformar la sociedad.



UNAX ZABALA ARRIZABALAGA

Amerika

Datorren lau urteko, herrialde berrietan programa berrien irekieraz markatuta dator. Mundukidek 20 urtetan lankidetzak alorrean bildutako esperientzia eta testuinguru ezberdinetan aritutako pertsonen ezagutzarekin kontatuko dute lan berriak. Latinoamerikan, Colombia eta Ekuadorren hasiak gara lanean eta Afrikako herrialdea aukeratzeko 2011ko krisialdi ekonomikoaren ondorioz gelditutako identifikazio lanari helduko zaio.



JOSU URRUTIA BERISTAIN

Mundukideko zuzendaria

"Pertsonen aldeko apustua". Horrela definituko nuke azken hausnarketa estrategikoaren emaitza. Mozambike eta Brasileko pertsona gehiagorengana iristeko apostua egin nahi dugu, baina baita Colombia, Ekuador eta Afrikako beste herrialde bateko pertsona berriengana ere. Non, beraien bizi baldintzak hobetzeko eta bertako komunitateetako garapen sozioekonomikoa aldatzeko lanean ari diren pertsonak ahalduzko apostua eginez. Bestalde, eronka honetarako, Arizmendiarietak zion bezala, pertsona eraldatzaileak behar ditugu eta ez begira geldituko direnak. Norberaren burua eta ingurua eraldatzeko gai diren pertsonak. Urrutiko herrialdeetan esperientziak elkar banatzeko eta bertakoengandik ikasteko prest dauden pertsonak. Baita, Euskal Herrian, erakundearen gestioan lagunduko diguten boluntarioak. Norberaren lanaren esperientzia, behar handiagoa duten pertsonekin elkar-banatu duten ilusioz betetako pertsonak.

AMAIA ASEGINOLAZA PINEDO

Control económico

Durante los próximos cuatro años trabajaremos en lo que hemos denominado Nuevas Propuestas de Interooperación. Con este término entendemos la "inversión en I+D" de Mundukide, con el objetivo de identificar y trabajar nuevas ideas o propuestas que fortalezcan la intercooperación en Mundukide. En definitiva, una idea de ampliar nuestros esquemas y modos de actuación y también para acercarnos a otras realidades que pudieran sernos de utilidad en el futuro.



ENARA RUIZ DE EGINO ARCELUS

Finantziaketa


Plan honen beste eronka bat jasagarritasun finantzarioan datza, eta horrek berekin dakar Mundukidaren finantza premiei erantzuteko gai izatea. 2021ean 2.000.000 euroko aurrekontua izatera iritsi nahi dugu, eta horretarako hemengo eta lekuan lekuko erakundeen diru laguntzak eskuratu nahi ditugu; gainera, kooperatibetatik eta pertsona partikularrengandik datozen fondoak aurrekontua %50eraino handitu gura dugu.



URRI URIZAR IBABE

Komunikazioa

Datozen 4 urtetan, pertsona gehiago gonbidatu nahi ditugu, Mundukideko partaide izatera. Seguruena, jende ugari egongo da Mundukideko elkartasun proiektuekin bat egiteko gogoz, baina horretarako pertsonengandik gertu egon behar dugu eta egiten den lanaren informazio egokia eskaini. Ezinbestekoa da proiektuekin lortzen den inpaktua kontatzen jakitea, elkartasunak pena merezi duela ulertarazteko.



BEÑAT ARZADUN OLAIZOLA

Mozambike

Gure asmoa jadanik lanean ari garen herrietako lankidetzak biderkatzea da. Beraz, Mozambiketan lau urtetan 30.000 nekazarirekin lan egitea da helburua, 18.000 lur hektarea lantzea eta lortutako ekoizpena, 10.000 lanpostu sortu ditzaketen irabazien balioaren adinekoa izatea. Luzaroan iraungo duen eta jasagarria izango den dinamika sortu ahal izateko behar adina masa kritikoa lortu nahi dugu.



JOSE LUIS LEJARDI BERNAOLA

Brasil

En Brasil trataremos de aumentar el número de cooperativas acompañadas y mejorar el modelo de acompañamiento. Nuestro papel principal es desarrollar un modelo de gestión capaz de simplificar y mejorar la actuación de las asociaciones y cooperativas en todos sus ámbitos. De facto, comenzamos el 2018 con 3 nuevos cooperantes con experiencia cooperativa que se han incorporado para dar cobertura en la REGIÓN SUR y al nuevo programa de CEARÁ. El convenio de colaboración con la Secretaría de desarrollo agrario del Gobierno estadual de Ceará nos permite trabajar con 2.072 familias, 98 asociaciones de asentamientos y unos 75 técnicos de apoyo. El proyecto fomentará el desarrollo productivo de los agricultores en cooperación con 5 agro-industrias gestionando cadenas productivas en el estado y la generación de una central de comercialización. Es un ejercicio de cooperación e intercooperación.